



LIZARRAGAKO KONTZEJUA

31829 LIZARRAGA-ERGOIENA

LIZARRAGA ERGOIENAKO APARTAMENTUAK ALOKATZEKO BALDINTZEN AGIRIA ETA ESTIMAZIOA

FAMILIA-UNITATEA

Familia-unitate bakoitzak gehienez 3 heldu izan ditzake.

Honako alderdi hauek baloratuko dira:

- 18 urtetik gorako heldu bakoitzari: 2 puntu (gehienez 4 puntu).
- 25-35 urte bitartean: 3 puntu pertsonako (gehienez 6 puntu).
- Adingabe bakoitzeko: 5 puntu (gehienez 10 puntu).
- Guraso bakarreko familien kasuan (aita edo ama): 5 puntu.

Puntuazio horiek ez dira gehigarriak, hau da, puntuaziorik altuena hartuko da familia-unitate batek kasu bat baino gehiago aukera badezake.

AUZOTASUNA

Egungo auzotasuna pertsona bakoitzeko baloratuko da, hau da, familia-unitateko kide bakoitzaren erroldatzea hartuko da kontuan, eta honela puntuatuko da:

Gutxienez 2 urtez erroldatuta egotea estimazioaren egunean.

- Lizarraga: 5 puntu.
- Ergoiena: 3 puntu.
- Sakana: 2 puntu.
- Lizarragan erroldatutako bizilagun baten bigarren mailarainoko senidea: 5 puntu.

Puntuazio horiek ez dira gehigarriak, hau da, puntuaziorik altuena hartuko da familia-unitate batek kasu bat baino gehiago aukera badezake.

EUSKARA

Euskara jakitea pertsona bakoitzeko 2 punturekin baloratuko da (gehienez 4 puntu).
Mintzatua.



LIZARRAGAKO KONTZEJUA

31829 LIZARRAGA-ERGOIENA

AKREDITAZIO-AGIRIAK

Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira, betiere beharrezkoak badira:

- NAN.
- Adingabekoen kasuan, familia-liburua edo jaiotza erregistro zibilean inskribatzeko agiria.
- Erroldatze-ziurtagiria, datarekin.

Apartamentu horiek lehen etxebizitza gisa erabili nahi dira. Horrela, herrian biztanleria finkatu nahi da eta errenta baxuko pertsonen alde egin. Era berean, apartamentu horietakoren batean bizi diren bitartean, inkilinoak, edo horietako batek gutxienez, Lizarragan erroldatuta egon beharko dute.

Eskaera gutun-azal itxian bidaltzeko azken eguna, 2026ko martxoaren 13a, Ergoienako Udalaren bulegoetan (Intxorreta 15, 31829, Lizarraga). Eskabideak irekitzea, 2026ko martxoaren 16an. Mahaia 10:00etan eratuko da kide hauekin:

- 1- Kontzejuko Lehendakaritzak
- 2- Kontzejuko Kidea

Idazkari lanak Ergoienak udalak egingo ditu.